



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 7a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2019 ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2019 ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2019 ekitaldikoa, egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2019ko ekitaldiko fiskalizazio txostenaren edukia- ren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-21/CCO-00020).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2019 ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (4. or.).
 - II.1.** Antolaketa-egitura (4. or.).
 - II.2.** Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren lege-neurriak (6. or.).
 - II.3.** 2019an onetsitako araudia (6. or.).
- III.** Helburua, norainokoa eta mugak (7. or.).
- IV.** Toki entitateen fiskalizazio-jardueren laburpen-oroitidazkia (8. or.).
- V.** Toki sektore publikoaren finantza egoera (11. or.).
 - V.1.** Diru-sarrerak (11. or.).
 - V.2.** Gastuak (12. or.).
 - V.3.** Adierazleak (14. or.).
 - V.4.** Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak (16. or.).
- VI.** Kontratazio administratiboa (17. or.).
- VII.** Nafarroako udalen, EAEkoen eta Estatuko en arteko konparazioa zenbait adierazleri erreparatuta (19. or.).
- VIII.** Konklusioak eta gomendioak (22. or.).
 1. eranskina Toki entitateei 2019ko ekitaldian aplikatzekoa zaien araudia (26. or.).
 2. eranskina Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoera 2019an(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfn Navarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Hala, foru lege horren 350.2 artikulua araberak, nahitaezkoa da Kontuen Ganberaren kontrol eta fiskalizazio jardueren laburpen-txostena bidaltzea, urtero, Nafarroako Gobernura eta Parlamentura, Nafarroako toki entitateen eremuan.

2019ko ekitaldiari buruzko txostena ezin izan da lehenago egin, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onetsi eta Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta.

Txostenak zortzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, toki sektore publikoaren antolamendu-egitura eta 2019an onetsitako arau nagusiak erakusten ditugu. Hirugarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak erakusten ditugu. Laugarren ataletik zazpigarrenera birtartekoetan 2019. urteari buruzko honako alderdi hauek jaso dira: Kontuen Ganberak toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio-jarduketan oroitidazkia, haren finantza-egoera, toki entitateen kontratazio administratiboa, eta adierazle multzo bat erabiliz Nafarroako udalak Euskal Autonomia Erkidegokoekin eta Estatuko gainerakoekin alderatzen dituen analisia. Azken epigrafeak egindako lanetik ateratako konklusioak eta gomendioak jasotzen ditu.

Txostenarekin batera, gainera, bi eranskin badaude, honako hauek biltzen dituztenak: Nafarroako toki entitateei 2019an aplikatzekoa zaion araudia eta toki sektore publikoaren 2019ko finantza egoerari buruz Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena.

Lana 2021eko azaroan egin zuen auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lan-kidetzan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

II.1. ANTOLAKETA-EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarriko toki entitateak. Horiez gain, 2019. urtean toki entitatetzat jo dira honako hauek:

- Kontzejuak: udal baten dermioaren barrenean kokaturiko toki entitateak dira, hark baino populazio eta lurralde esparru txikiagoa dutenak.
- Herri ondasunen titular edo administratzaile diren korporazio tradizionalak: Errege Bardearen Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Komunitatea, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea eta gainerako korporazioak.
- Mankomunitateak edo zenbait udalen batasunak, obrak elkarrekin egiteko eta zerbitzu jakin batzuk emateko.
- Eskualdeak: udalaz gaindiko toki entitateak, zerbitzuak emateko eta udalaz gaindiko eremuko jarduerak kudeatzeko.
- Plangintza orokorreko mankomunitateak, toki entitateen eskumeneko zerbitzuen ematea koordinatzeko.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsi izanak berekin ekarri du partzuergoak toki entitate gisa desagertzea, eta horrekin bete egin da Nafarroako Foru Komunitateak Estatuarekin 2015ean hartutako konpromisoa. Era berean, foru lege horrek administrazio barrutiak eta udal batasunak ezabatzen ditu, baina azken horiek eskualdeak sortu arte iraunen dute.

Honako hau da toki entitateen kopurua, 2019ko abenduaren 31n, aurreko urteetako toki entitateen kopuruarekin alderatuta:

Toki entitatea	2015	2016	2017	2018	2019
Udalak ⁽¹⁾	272	272	272	272	272
Kontzejuak	347	346	346	346	346
Mankomunitateak ⁽²⁾	63	63	62	62	62
Udal batasunak	19	20	23	22	22
Guztira	701	701	703	702	702

(1) 60 udal konposatuak dira.

(2) bi mankomunitatek ez dute jarduerarik.

Datuak 2018koekin alderatuta, ikus dezakegu ez dagoela inolako aldaketarik.

2015etik 2019ra doan aldian, honako hau da erakunde autonomoen, tokiko enpresa publikoen, tokiko fundazio publikoen eta partzuergoen kopurua:

Entitatea	2015	2016	2017	2018	2019
Erakunde autonomoak ⁽¹⁾	65	64	63	60	58
Enpresa publikoak	55	54	53	57	56
Fundazio publikoak	9	9	8	8	8
Partzuergoak ⁽²⁾	15	15	17	17	17
Guztira	144	142	141	142	139


(1) Erakunde autonomoetan sartu dugu Toki Entitateen Erregistroan alta emanda ez dagoen bat (Zaraitzuko Musika Eskola).

(2) Dauden partzuergo guztiak sartu ditugu.

2018ko aldean, erakunde autonomoi dagokienez, azkendu egin dira Tafallako Udalaren Kirol Patronatua eta Oltza Zendeako Musika Eskolaren Patronatua. Erakunde autonomo guztietatik, udalen menpekoak 55 dira, eta mankomunitateen menpekoak hiru.

Enpresa publikoei dagokienez, alta eman zaio bati (Ezka Ibaia Energia SL), eta baja eman zaie bi enpresari (Cintruénigo Servicios Municipales SRL eta Orbalan SL).

Aurreko datuak kontuan hartuta, hona hemen Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2019ko abenduaren 31n:



Nafarroako 272 udaletako biztanleria, 2019ko urtarrilaren 1ean, 654.214 biztanlekoa izan da, errolda ofizialeko datuen arabera. Bertan, honako banaketa hau ageri zen:

Biztanleria-tartea	Udalen kopurua	Udalak, guztizkoaren gainean (%)	Biztanleria	Biztanleria, guztizkoaren gainean (%)
<101	43	15,8	2.485	0,4
101-200	52	19,1	7.296	1,1
201-500	58	21,3	18.656	2,9
501-1.000	36	13,2	26.320	4,0
1.001-2.000	23	8,5	32.305	4,9
2.001-3.000	23	8,5	57.670	8,8
3.001-5.000	16	5,9	63.571	9,7
5.001-10.000	9	3,3	65.956	10,1
10.001-20.000	8	2,9	100.717	15,4
20.001-30.000	2	0,7	41.327	6,3
30.001-50.000	1	0,4	36.258	5,5
50.000 baino gehiago	1	0,4	201.653	30,8
Guztira	272	100	654.214	100

Aurreko datuetatik nabarmentzekoa da Nafarroako udalen ehuneko 69k (189 udal) 1.000 biztanle baino gutxiago dutela eta, multzo osoan, biztanleriaren ehuneko zortzi osatzen dutela. Hala-ber, Iruñak eta 10.000 biztanletik gorako hamaika udalek Nafarroako biztanleriaren ehuneko 58 osatzen dute.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriz adierazi duen gisan, biztanleriaren dimentsio murriztuarekin lotuta egon ohi dira baliabide mugatuak: bai giza baliabideak, bai baliabide finantzarioak. Halaber, halakoetan administrazio egitura egoki eta nahikoa falta izan ohi da eskumenak kudeatzeko. Horrek zailtasunak eragiten ditu zerbitzuak eraginkortasun, ekonomia, efizientzia eta kalitatez emateko orduan.

II.2. TOKI SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO PLANTEATU DIREN LEGE-NEURRIAK

Ganbera honek 2014ko toki sektore publikoari buruz egindako txostenean gai honetaz aipatu ziren aurrekariak bere horretan jarraitzen dute.

2019ko otsailan, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsi zen.

Foru lege horrek toki antolaketa berri bat zehazten du. Bertan, toki entitateen bi mota berri agertzen dira, eta, bestalde, ordura arte zeuden beste batzuk desagertzen dira. Edonola ere, arau horretan hainbat xedapen iragankor eta azken xedapen jaso dira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako (NFKA) aginduak ezartzen dituztenak, toki erreforma hori behin betiko taxutzen joateko. NFKAk hala eskaturik eskualdeak sortzeko epea 2020ko abuztuan amaitu zen.

Nafarroako Parlamentura finantzaketa-proposamen bat bidaltzea ezartzen zuen xedapena –apurka-apurka egungo dirulaguntza finalisten ordeztoki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikuluan aurreikusitako finantzaketa moduluak jartzeko– 2019ko abenduaren 31n amaitu zen. Finantzaketa-proposamen berria Parlamentuari aurkeztea 2022ko urtarrilerako aurreikusita dago.

II.3. 2019AN ONETSITAKO ARAUDIA

Nafarroako toki sektore publikoa osatzen duten entitateei aplikatzekoa zaien araudia txosten honekin batera doan 1. eranskinean ageri da. Jarraian, 2019an onetsi ziren eta sektore honetan aplikatzekoak diren arau nabarmenenak aipatuko ditugu.

- 3/2019 Foru Legea, urtarrilaren 24koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

- 4/2019 Foru Legea, otsailaren 4koa, Nafarroako Toki Administrazioaren erreformatarakoa.

- 6/2019 Foru Legea, otsailaren 7koa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu baterekin ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

- 7/2019 Foru Legea, otsailaren 18koa, aldatzen duena martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzkoa.

- 8/2019 Foru Legea, otsailaren 28koa, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena.

- 12/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa, Nafarroako parte-hartze demokratikoari buruzkoa.

- 15/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 3ko 2/2018 Foru Legea aldatzen duena.

- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

- 20/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea.

- 4/2019 Foru Lege Dekretua, urriaren 23koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onesten dituena.

- 74/2019 Foru Dekretua, ekainaren 26koa, Kontratazio Publikorako Batzordea arautzen duena.

- 253/2019 Foru Dekretua, urriaren 16koa, Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituena.

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lanaren helburuak hauek izan dira:

- Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio jardueren 2019ko ekitaldiko laburpena aurkeztea.
- Nafarroako toki entitateen 2019ko finantza egoerari eta antolaketari buruzko ikuspegia eskaintzea Nafarroako Parlamentuari, administrazio publikoei eta jendarteari.
- Toki entitateen kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.
- Nafarroako toki entitateek 2019an egindako kontratazioa deskribatzea.
- Nafarroako udalen, Euskal Autonomia Erkidegoko en eta Estatu gainerako en arteko konparazioa egitea, zenbait adierazle erabiliz.

Lanaren norainokoak toki entitateen 2019ko ekitaldiko kontu orokorra hartzen du; honako hauek osatzen dute kontu hori:

- Entitatearen beraren kontu orokorra (udala, kontzejua nahiz mankomunitatea izan), bai eta haren erakunde autonomoena ere.
- Merkataritzako elkarteak, horien kapitala oso-osorik kasuko toki entitatearena bada.
- Eranskinak.

Era berean, Lurralde Kohesiorako Departamentuak egindako txostena aztertuko da, finantza egoerari buruzkoa.

Toki sektore publikoaren finantza egoeraren analisisa egiterakoan, gure lanerako muga bat izan da informazio ekonomiko-finantzariorik eta aurrekontukorik ez edukitzea 2019ko ekitaldiko beren kontu orokorra eta likidazioa Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari 2021eko ekainaren amaieran bidali gabe zeuden toki entitateei buruz; honako hauek dira, hain zuzen:

- 272 udaletatik zazpi: Eratsun, Ezkurra, Imotz, Itzaltzu, Orkoi en, Saldias eta Zuñiga. Udal horiek 5.048 biztanle dituzte guztira; horrek populazio osoaren ehuneko bat egiten du.
- 2019an zeuden 346 kontzejuetatik 48: Aizpun, Albiasu, Arbontze, Arlegi, Arribe-Atallu, Arrieta, Asterrain, Azkarate, Beruete, Biotzari, Zizur Txikia, Eraso, Estenotz, Etxaleku, Gaintza, Gartzaron, Gazolatz, Goldaratz, Genbe, Igoa, Ihaben, Inbuluzketa, Intza, Itsaso, Iturgoien, Labeaga, Larraia, Larraiotz, Latasa, Lizaso, Muetz, Muru-Asterrain, Murugarren, Muskitz, Oloritz, Oskotz, Paternain, Getze Galar, Senosiain, Soraur en, Udabe-Beramendi, Undio, Untzu, Uritz, Urritza, Uztegi, Zarikiegi eta Zarrantz. Kontzeju horien populazioa 6.628 pertsonakoa da, eta Nafarroako guztizko populazioaren ehuneko bat egiten du.

Nabarmentzekoa da ez dutela konturik aurkeztu Zizurko udalerrri konposatuko zortzi kontzejuek -3.888 biztanle dituzte guztira-, Araitz Ibarreko bost kontzejuek -512 biztanle- eta Imotz Ibarreko zortzi kontzejuek -guztira 423 biztanle dituzte-.

• Mankomunitateak eta udalen batasunak 84 dira guztira, eta horietatik bederatzita entitatek ez dute konturik aurkeztu. Hauek dira: Burgi, Bidankoze eta Gardeko Udalen Batasuna, Aralarko Elkartea, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren kudeaketarako Mankomunitatea, Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea, Antzin-Ameskoako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Goi Araxesko Mankomunitatea, Euskararen Kudeaketarako Nafarroa Iparraldeko Mankomunitatea, Orreaga Kirol Mankomunitatea eta Ezkabarteko eta Olaibarko Langileriaren Mankomunitatea.

Bestetik, zehaztu beharra dago finantza egoerari buruzko azterketa egiten dela toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrekontu-datu bateratuekin. Ez da jasotzen sozietate publikoen gaineko informaziorik, Iruñeko Zerbitzuak SA sozietatearen kasuan izan ezik, hori lehen aldiz bateratu baita txosten honetan. Ez dira bateratu fundazio publikoak eta partzuergoak. Zorpetzearen azterketan bai, sartu dira udal eta mankomunitateen menpeko sozietateei dagozkien datuak.

Norainokoak muga hori izan badu ere -informazio faltaren ondorioz-, uste dugu gure lanean lortutako konklusioak, datu horiek eduki izan bagenu ere, ez lirakeela oso desberdinak izanen.

IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO-JARDUEREN LABURPEN-OROITIDAZKIA

Kontuen Ganberak Iruñeko eta Eguesibarko udalen 2019. urteko kontu orokorraren erregular-tasun fiskalizazioa egin zuen (finantzarioa eta legezketasunarena).

Ondoren, toki entitate horiei buruzko datu batzuk emanen ditugu:

Toki entitatea	Txostena- ren data	Biztanleak 2019-01-01ean	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2019-12-31n	Menpeko entitateak		
						EEAAk	Enpresa	Fundazioa
Iruña	2020/12/15	201.653	204.328.890	215.880.872	1.656	2	5	1
Eguesibar	2020/09/04	21.128	14.770.534	14.595.647	119	0	1	-
Fiskalizatutako toki entitateak, guztira		222.781	219.099.424	230.476.519	1.775	2	6	1

Fiskalizatutako entitateei buruzko datu nagusiak eta Nafarroako toki sektore publiko osoa alde-ratzen baditugu, honako hauek dira emaitzak:

- Fiskalizatutako bi toki entitateen biztanleriak 272 udalerrietako biztanleria osoaren ehuneko 34 egi-ten du.
- Aztertutako entitateen diru-sarrerek eta gastuek Nafarroako toki sektore publikoaren guztizko diru-sarreraren eta gastuen ehuneko 26 eta ehuneko 25 egiten dute, hurrenez hurren.
- Fiskalizatutako udal horien menpeko entitateak, berriz, guztietatik ehuneko 8,3 dira, partzuergoak kontuan hartu gabe.

Aipatutako auditoriez gain, lan hauek egin ziren:

- a) Langileak kontratatzean legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazio horizontala, Jurra-mendiko Mankomunitatean eta Lekunberri, Lodosa, Ribaforada eta Zangozako udaletan, 2015-2020 aldirako.
- b) Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek egindako eragozpen-oharren kontrako era-baki eta ebazpenen eta diru-sarreretan detektatutako anomalien gaineko txostena, 2018 eta 2019.
- c) Lekunberriko Udaleko ur hornidura eta saneamendu zerbitzuari buruzko txostena, 2015etik 2020ra bitarteko ekitaldiak aztertzen dituen.

Fiskalizazioaren emaitzak kasuko txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu ziren.

Finantzen eta legezketasunaren fiskalizazioen helburua da honako hauei buruzko iritzia ema-tea:

- Finantza-auditoretzako iritzia: ea kontu orokorrak jasotzen ote zuen, alderdi nabarmen guztietan, toki entitatearen ondarearen, aurrekontuen likidazioaren eta finantza egoeraren irudi zehatza, 2019ko abenduaren 31n; bai eta haren emaitza ekonomikoak eta aurrekontukoak ere, egun horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatu behar den finantza informazio publikoaren arau esparruarekin bat, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko irizpide eta printzipioekin bat.
- Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia: ea toki entitatearen 2019ko ekitaldiari dagozkion finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat ote datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Fiskalizazioaren emaitzak txostenetan jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizi-alean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu.

Txosten horietan jasotako iritzia dagokionez, honako hauek izan ziren emaitzak:

- a) Finantza-auditoretzako iritzia aldekoa izan zen Eguesibarko Udalean, eta era berean alde-koa Iruñeko Udalean, baina ohartarazita kontabilizatu gabe zeudela udal montepioko langileen pentsioen ondoriozko betebeharrak aktuarialak.

b) Legezketasuna betetzeari buruzko auditoretzako iritzia aldekoa izan zen, salbuespenekin, sei udaletan eta mankomunitate batean. Kasu horietan honako hauek izan ziren salbuespen nagusiak:

- Zerbitzu eta hornidura gastu batzuk ordaindu ziren kontraturik gabe, kontratuen gehieneko indarraldia bukatuta baitzegoen.
- Osoko Bilkurak erabaki zuen lan-kontratudun finko bilakatzea aldi baterako lan-kontratua zuten hiru langile, lan-kontratudun finkoen lanpostu banatan ari zirenak. Ez ziren bete berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak.
- Berrikusitako hiru kontratazio-prozesutan ez dira bete berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak.
- Behar iraunkor eta egiturazkoei dagozkien lanpostuak ez dira plantilla organikoan jaso eta behin eta berriz erabili dira aldi baterako kontratazioak behar horiek asetzeko. Ondorioz, udalaren 21 langilek kontratu mugagabe ez-finkoa dute.
- Ez dira nominan sartu langileei ordaindutako kilometraje gastuak eta kalte-ordainak.
- Produkzioaren inguruabarrak direla-eta erakunde autonomo bateko langileei egindako behin-behineko kontratuak ez datoz bat egindako jardueraren izaerarekin, jarduera hori betebeharrak iraunkor eta ziklikoak baita.

Honako hauek dira Ganbera honek entitate horien fiskalizazio txostenetan jaso zituen gomendio nagusiak:

- *Nomina alde aurretik fiskalizatzea, ordaindu baino lehen.*
- *Egiturazkoak eta iraunkorrak diren lanpostu guztiak plantilla organikoan sartzea.*
- *Ezarritako prozeduren arabera egitea lanpostuen deialdiak, une oro bermatuz berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak enplegu publikorako sarbidean.*
- *Aldi baterako langileen egoera erregularizatzea, eta lanpostu hutsen deialdia egitea, egungo araudiaren testuinguruan.*
- *Espedientean justifikatzea lan eskaintza publikoetan sartutako lanpostuetarako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean ezarritako baldintzak betetzen direla, bai enpleguaren ordezte-tasari dagokionez, bai aldi baterako enplegua egonkortzeari dagokionez.*
- *Kontratuen lizitazio-prozeduren denbora-plangintza egokia ezartzea, haien gehieneko indarraldia ez gaintzeko.*
- *Kasu guztietan, baldintza-agirietan ezarritako exekuzio baldintza bereziak betetzen direla egiaztatzea.*
- *Pleguetan balorazio ekonomikorako formula linealki proportzionalak ezartzea, lizitatuak lortutako puntuazioa prezio-murrizketarekiko zuzenki proportzionala izan dadin.*
- *Inbertsio plan bat onestea, plangintza egokia egin ahal izateko, bai eta haren jarraipena, kontrola eta ondorengo ebaluazioa ere.*
- *Dirulaguntzei buruzko plan estrategikoa onestea.*
- *Kostuen azterketa egiten jarraitzea, hura ezartzeko eta tasak eta prezio publikoak zerbitzuen kostuen arabera ezartzeko.*

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari dagokienez, Iruñeko Udalean eta Eguesibarko Udalean soilik fiskalizatu da horiek betetzen ote diren. Oro har, entitateek arau fiskalak bete zituzten, hiru kasu hauetan izan ezik: Eguesibarko Udalak ez zuen bete gastu-araua eta ez zuen plan ekonomiko-finantzari onetsi. Iruñeko Udalak hiru arau fiskalak betetzen zituen, beraren txostenaren arabera, baina Ganbera honek egindako kalkuluak erakutsi zuen ez zela bete gastu-araua.

Lekunberriko Udalaren ur hornidura eta saneamendu zerbitzuaren erregularitasunari eta jardunari buruzko auditorian ondorioztatu zen zerbitzua berregituratu egin behar dela, azpiegitura guztien ustiapena eta mantentzea batuz, ematen den zerbitzuaren eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko. Beharrezkoa da zerbitzuaren ardura duen Partzuergoaren estatutuak eguneratu eta egokitzea aplikatzekoak zaizkion Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko xedapenen arabera, bai eta argi ezartzea ere zein diren zenbatu beharreko gastuak eta horiek Partzuergoko kideen artean banatzeko irizpideak.

V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA

Toki sektore publikoari buruzko 2019ko txostenean, zeina txosten honen 2. eranskinean jaso baitugu, toki entitateen (udalak, kontzejak, mankomunitateak, elkarte tradizionalak eta udalen batasunak) eta beren erakunde autonomoen informazio bateratua aurkezten da.

Txosten horretan, ordea, lehen aldiz aurkezten da Iruñerriko Zerbitzuak SArekin (SCPSA) bateratutako datuen atala. Sozietate hori Iruñerriko Mankomunitatearen menpekoa da. Zerbitzu mankomunitateak kudeatzen dituzten sozietate publikoen multzoan sozietate horrek egiten duen gastua guztizko gastuaren ehuneko 80 inguru da.

V.1. DIRU-SARRERAK

Hona toki sektore publikoaren diru-sarreraren aurrekontu-betetzea:

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	AEG 2019	Ehuneko, diru-sar. guzt. gainean	Betetakoa (%)	(milioitan) (1)	
					2019/2018 aldea (%)	AEG, 2019
1 Zuzeneko zergak	189,62	199,26	22,4	105	3	199,26
2 Zeharkako zergak	22,51	33,88	3,8	150	17	33,88
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-	158,10	168,95	19,0	107	4	230,71
4 Transferentzia arruntak	338,90	340,59	38,2	100	5	347,59
5 Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta	51,35	48,92	5,5	95	10	48,97
Diru-sarrera arruntak	760,48	791,59	88,8	104	5	860,41
6 Inbertsio errealen besterentzea	13,62	11,02	1,2	81	25	11,07
7 Kapital-transferentziak	122,65	83,51	9,4	68	24	87,87
Kapitaleko diru-sarrerak	136,27	94,53	10,6	69	15	98,94
8 Aktibo finantzarioak	135,66	2,34	0,3	2	207	2,34
9 Pasibo finantzarioak	21,45	2,94	0,3	14	29	2,94
Diru-sarrera finantzarioak	157,11	5,28	0,6	3	8	5,28
Guztira	1.053,87	891,40	100	85	6	964,63

(*) SCPSAekin bateratutako eskubide aitortuak.

Diru-sarreraren 2019rako behin betiko aurreikuspenek 1.053,87 milioi euro egin zuten, eta ehuneko 85eko betetze-maila dute. Diru-sarrera arruntan kasuan aurreikusitakoaren ehuneko 104 bete baziren ere, nabarmentzekoa da pasibo finantzarioen eta kapital-eragiketen betetze txikia; izan ere, ehuneko 14 eta ehuneko 69 bete ziren, hurrenez hurren.

2019an, toki sektore publikoaren diru-sarrera aitortuek 891,40 milioi egin zuten; horietatik, ehuneko 88,8 diru-sarrera arruntak izan ziren (transferentziak eta tributuoak, batez ere). Kapitaleko diru-sarrerak zenbateko osoaren ehuneko 10,6 dira, eta gainerako ehuneko 0,6a finantza eragiketetan sartzen da.

2019ko guztizko diru-sarrerak 2018koak baino ehuneko sei handiagoak izan ziren, eta kapitulu guztiek egin zuten gora. Kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 15 hazi ziren, eta diru-sarrera arruntak ehuneko bost. Kopuru absolututan, transferentzia arruntek eta kapital-transferentziek izan dute igoera handiena, 18 eta 16 milioi, hurrenez hurren.

¹ Txosteneko datu ekonomikoak milioika eurotan ematen dira. Kopuruak biribildu egin dira bi dezimal erakusteko. Datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatu daude, eta ez biribildutako balioen gainean.

Diru-sarrerara guztien ehuneko 86 udalei eta kontzejuei dagozkie, eta gainerako ehuneko 14a, berriz, mankomunitateei eta batasunei. Lehenbizikoek bost ehuneko-puntu handitu dute aitortutako guztizko zenbatekoan duten pisu erlatiboa.

SCPSAk diru-sarreretara egindako ekarpen osoaren ehuneko 84 hirugarren kapituluari dagokio (Tasak eta prezio publikoak), eta gainerako ehuneko 16a jasotako transferentziak dira.

V.2. GASTUAK

Hona hemen toki sektore publikoaren 2019ko gastuen laburpen-taula:

(milioitan)

Kapituluak	Behin betiko kredituak	ABG, 2019	Gastu guztien gaitien gainean (%)	Betetakoa (%)	2019/18 aldea (%)	ABG 2019 (*)
1 Langile-gastuak	308,18	299,37	33,8	97	7	324,38
2 Ond. eta zerbitzuetako gastu arrun-	303,39	282,72	31,9	93	2	316,89
3 Finantza-gastuak	2,20	1,63	0,2	74	-28	1,63
4 Transferentzia arruntak	77,75	71,82	8,1	92	4	71,82
Eragiketa arruntak	691,52	655,54	74,0	95	4	714,70
5 Kontingentzia Funtsa	0,38	0,00	0,0	0	-	0,00
Kontingentzia Funtsa	0,38	0,00	0,0	0	-	0,00
6 Inbertsio errealak	301,84	182,67	20,6	61	58	193,71
7 Kapital-transferentziak	20,16	16,74	1,9	83	84	16,74
Kapital-eragiketak	322,00	199,42	22,5	62	59	210,45
8 Aktibo finantzarioak	2,95	1,51	0,2	51	-19	1,51
9 Pasibo finantzarioak	29,31	28,91	3,3	99	-12	28,91
Finantza-eragiketak	32,26	30,41	3,4	94	-12	30,41
Guztira	1.046,16	885,37	100	85	12	955,57

(*) SCPSAekin bateratutako gastuak.

2019ko ekitaldirako behin betiko kredituak 1.046,16 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko 85eko betetze-maila izan zuten. Gastu arruntak eta finantza-eragiketekin lotuak ehuneko 95eko eta ehuneko 94ko betetze-mailan egon ziren, hurrenez hurren. Aitzitik, kapitaleko gastuen betetze-maila ehuneko 62koa izan zen.

Toki sektore publikoaren gastuak 885,37 milioi eurokoak izan ziren 2019an, eta 2018koak baino ehuneko 12 handiagoak izan ziren; nabarmentzekoak dira langile-gastuak eta ondasun arruntak eta zerbitzuen gastuak, zeinek aitortutako gastu guztien ehuneko 34 eta ehuneko 32 egiten baitute, hurrenez hurren. Bestalde, inbertsioetako gastua guztizko gastuen ehuneko 21 da.

2018ko datuekin alderatuta, alde nabarmenenak kapital-eragiketako gastuetan izan dira, ehuneko 59 handitu baitira. Jaitsierei dagokienez, alde nabarmenena finantza-eragiketetan dago, ehuneko 12ko jaitsierarekin. Kopuru absolututan, inbertsioetako gastuaren 67 milioiko gehikuntza nabarmentzen da, eta berari zor zaio guztizko gastuen ehuneko 69ko igoera; eta ondoren langile-gastuen 19 milioiko gehikuntza, hain zuzen ere gehikuntza osoaren ehuneko 20.

Gastu guztien ehuneko 85 udalei eta kontzejuei dagozkie, eta gainerako ehuneko 15a, berriz, mankomunitateei eta batasunei.

SCPSAk 70 milioiko gastua izan du, ehuneko 49 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan eta ehuneko 36 langile-gastuetan. Gainerako ehuneko 15a inbertsioetako gastua da.

Hurrengo taulan gastu horien sailkapen funtzionala erakusten dugu:

(milioitan)

Gastu-politika	2018ko zenbaterkoea	2019ko zenbaterkoea	2019ko gastu guztien gainean (%)	2019/2018 aldea (%)
Ongizate komunitarioa	108,48	139,18	16	28
Zerbitzu orokorrak	92,34	96,25	11	4
Etxebizitza eta hirigintza	66,33	89,06	10	41
Hezkuntza	70,41	73,86	8	5
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	67,45	71,44	8	6
Kultura	64,78	69,15	8	7
Kirola	48,81	64,36	7	32
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	53,36	56,03	6	5
Pentsioak	51,88	51,92	6	0
Zor publikoa	33,37	29,03	3	-13
Beste batzuk	133,76	145,08	16	8
Guztira	787,98	885,37	100	12

Ongizate komunitarioa (hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua, ur hornidura, argiteria eta kale garbiketa, besteak beste) izan zen toki sektore publikoan 2019an zenbateko handiena izan zuen gastu politika (139,18 milioi, zenbateko osoaren ehuneko 16), eta ondoren daude zerbitzu orokorrak (96,25 milioi, hau da, ehuneko 11) eta etxebizitza eta hirigintza (89,06 milioi, hau da, ehuneko hamar).

Zor publikoa ehuneko 13 jaitsi zen 2018koaren aldean. Gainerako gastu-politikak hazi egin ziren aurreko ekitaldiko aldean.

Etxebizitza eta hirigintza arloko gastu-politikaren igoera nabarmentzen da: 2018ko aldean ehuneko 41 hazi zen eta guztizko zenbatekoan pisu handiena zutenetik hirugarrena izan zen, 2018an seigarren lekuan zegoen arren. Halaber, kirol arloko gastu-politikak ehuneko 32 egin zuen gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Hona hemen SCPSAren bateratzeak eragindako gastu-politiken konparazio-taula:

(milioitan)

Gastu-politika	2019ko zenbatekoa (SCPSA gabe)	2019ko zenbatekoa (SCPSAekin)	Aldea	Gastuaren gainean, soz. gabe (%)	Gastuaren gainean, soz. (%)
Hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua	36,74	71,34	34,60	26	34
Edateko ur hornidura etxeetan	44,50	66,60	22,10	32	32
Argiteria publikoa	29,46	29,46	-	21	14
Estolderia, hondakin uren hust. eta tratamendua	6,08	19,58	13,50	4	9
Kale garbiketa	17,22	17,22	-	12	8
Ongizate komunitarioko beste zerbitzu batzuk	2,86	2,86	-	2	1
Hilerria	2,33	2,33	-	2	1
Ongizate komunitarioa, guztira	139,18	209,38	70,20	100	100

SCPSAren gastu osoa, 70,2 milioi euro, ongizate komunitarioaren arloko gastu-politikari dagokio. Politika horrek 209,38 milioiko gastu bateratua du, eta hori gastu-politika osoen ehuneko 22 da, hau da, bateratu gabeko gastuetan politika horrek hartzen zuen ehunekoa baino sei puntu gehiago. Hauek dira gora egin duten zenbatekoak eta programa multzoak: 34,6 milioi hondakinen bilketan, kudeaketan eta tratamenduan, 22,1 milioi edateko uraren horniduran eta 13,5 milioi estolderian eta hondakin uren hustuketan eta tratamenduan.

V.3. ADIERAZLEAK

Hurrengo taulan, toki sektore publikoan gastatutako 100 euroko kopuru bakoitzaren bilakaera eta banaketa erakusten dugu, bai eta haien finantzaketa ere, SCPSAren datuak kontuan hartu gabe:

Gastuaren izaera	2018	2019	Finantzatze-iturria	2018	2019
Langileak	36	34	Tributu bidezko diru-sarrerak	46	45
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	35	32	Transferentziengatikoko diru-sarrerak	46	48
Transferentziengatikoko gastuak	10	10	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	7	6
Inbertsio errealak	15	21	Inbertsioak besterentzea	1	1
Finantza-zama	4	3			
	100	100		100	100

Antzeman daitekeen bezala, ekitaldi batetik besterako aldeak ez dira nabarmenak, baina gastuak inbertsioetan duen pisua igo egin da (sei puntu), eta konpentsatu egin da, behera egin dutelako langileen gastuen pisuak eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntenak, puntu bat eta hiru puntu hurrenez hurren, eta finantza-zamarenak, ehuneko-puntu bat; diru-sarreretan, zerga bidezko diru-sarreraren pisua eta ondare bidezkoena ehuneko-puntu bana murriztu da, eta konpentsatu egin da transferentziengatikoko diru-sarrerak izandako igoerarekin.

Inbertsioetako gastuak eta transferentziengatikoko diru-sarrerak —batez ere kapital-transferentzien bidezkoek— izandako gehikuntza 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren betearazpenari zor zaio. Izan ere, 2019an 20 milioiko funts gehigarriak jarri ziren plan horretan, finantza aldetik jasagarriak diren inbertsioak finantzatzeko.

Jarraian, toki entitateen finantza egoeraren adierazle batzuek 2015-2019 aldian zehar izan duten bilakaera ageri da:

Adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	(milioitan)		
						2019/15 aldea (%)	2019/18 aldea (%)	2019 (*)
Diru-sarrerak, guztira	751,27	765,30	784,48	839,48	891,40	19	6	964,63
Gastuak, guztira	732,93	717,40	758,13	787,98	885,37	21	12	955,57
Tributu bidezko diru-sarrerak	359,12	371,55	368,83	385,04	402,08	12	4	463,84
Transferentziengatikoko diru-sarrerak	323,05	332	347,39	390,26	424,10	31	9	435,46
Funtzionamendu-gastuak	591,74	598,92	610,52	626,02	653,91	11	4	713,07
Kapitaleko gastuak	79,57	79,69	98,25	125,09	199,42	151	59	210,45
Aurrek. emaitza ez-finantzarioa	60,42	78,22	62,70	81,22	31,16	-48	-62	34,19
Aurrezki gordina	112,95	123,24	112,17	126,60	137,68	22	9	147,33
Finantza-zama	49,89	37,59	47,59	35,00	30,54	-39	-13	30,54
Aurrezki garbia	63	85,41	64,58	91,60	107,14	70	17	116,80
Finantza-zamaren indizea	7,08	5,23	6,58	4,65	3,86	-46	-17	3,55
Aurr. gordina/diru-sarr. arruntak (%)	15,98	17,15	15,52	16,82	17,39	9	3	17,12
Zorpetze-ahalmena (%)	9,19	11,92	8,94	12,17	13,53	47	11	13,57
Zor bizia	301,39	280,46	234,26	207,63	179,61	-40	-13	179,61
Gastu orokorretarako diruzaintza-ge-	192,42	226,99	238,45	250,65	275,17	43	10	-(**)

(*) SCPSAren bateratutako adierazleak.

(**) Ez dago eskura adierazle bateratu hori.

Aurreko taulako datuak aztertuta, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2018koekin alderatuta, gastuak ehuneko 12 igo dira, eta diru-sarrerak, berriz, ehuneko sei. 2015arekiko bilakaerak zeinu positibo bera du; halere, aldearen portzentajea ehuneko 21 izan da gastuei dagokienez eta ehuneko 19 diru-sarrerei dagokienez.

- Kapital-gastuak 199,42 milioi eurokoak izan ziren, eta 2018ko ekitaldiarekiko hazkunde handiena izan duen gastua da, ehuneko 59ko igoerarekin.
- 2019an, toki sektore publikoak 107,14 milioiko aurrezki garbia eragin zuen, funtzionamendu gastuak eta zorraren finantza-zama ordaindu ondoren. Aurrezki hori 2015ean lortutakoa baino ehuneko 70 handiagoa da, eta ehuneko 17 egin du gora 2018koarekiko. Aurrezki gordinaren igoeraren ondorioz gertatu da gorakada hori, bai eta finantza-zamaren jaitsieraren ondorioz ere, azken hori ehuneko 13 murriztu baita 2018koaren aldean.
- Nafarroako toki entitateen 2019ko zor bizia 179,61 milioi eurokoa zen, ehuneko 1,50eko batez besteko interes tasarekin; batez beste 9,38 urte gelditzen dira epearen muga-eguna iristeko. 2015eko eta 2018ko datuekin alderatuta, 2019ko zorra ehuneko 40 eta ehuneko 13 txikiagoa da, hurrenez hurren. Jaitsiera hain nabarmen horien eragile dira, neurri batean, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak (hemendik aurrera, AEFILO) ezarritako betekizunak; izan ere, horien eraginez 2019an 28,91 milioi euroko zorra amortizatu zen, eta itundutako zor berria 2,94 milioikoa baino ez zen izan.
- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina –sortutako baliabideen gaindikina, hurrengo ekitaldietan gastuetako aurrekontu-aldaketak finantzatzeko erabil daitekeena– 275,17 milioikoa izan zen 2019an. 2015eko ekitaldiarekiko eta 2018ko ekitaldiarekiko goranzko joera izan zuen, ehuneko 43 eta ehuneko hamar handiagoa izan baitzen, hurrenez hurren.

V.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK

AEFILOren arabera, "Toki Administrazio Publikoa"ren sektoreak honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka / finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalen terminoetan neurtua.
- Gastu-araua; hau da, 2018koarekin alderatuta sektorearen 2019ko gastu konputagarrian dagoen aldeak ezin duela gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 2,7an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du sektorearen zorrak, kontabilitate nazionalen terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarreraren arrunten ehuneko 110.
- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Arlo honetan, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa toki entitateetara eta haien erakunde autonomoetara mugatzen da, kontabilitate nazionalaren terminoetan "Nafarroako Toki Administrazio Publikoaren" sektorea berez egituratu gabe. Datu horien arabera, honako hau aipatu behar dugu:

a) 2019an, toki sektore publikoaren finantzaketa gaitasuna 37,78 milioikoa izan da; beraz, arau fiskal hori bete egin da, hurrengo taula honetan ondorioztatu daitekeen bezala:

(milioitan)	
Finantzaketa gaitasuna/beharra	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	31,16
Doikuntzak:	
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak	(6,23)
Beste AAPP batzuegandik jasotako transferentziak	12,85
2019ko finantzaketa gaitasuna	37,78

b) Sektorearen zor bizia 2019ko abenduaren 31n 179,61 milioikoa zen, hau da, diru-sarreraren arrunten ehuneko 23. Portzentaje hori legeria indardunean ezarritako ehuneko 110eko mugatik beherakoa da; horrenbestez, arau hori bete egin da.

c) Ez da informaziorik aurkeztu gastu-arauari eta merkataritza zorra ordaintzeko epeei buruz. Azken arau horri dagokionez, egiaztatu da, Ogasun Ministerioaren argitalpenari jarraituz, informazio hori 2019ko lau hiruhilekoetarako badagoela soilik Nafarroako 60 toki entitateen kasuan; horren arabera, ordaintzeko batez besteko epea, urteko azken hiruhileko batez bestekoaren arabera, 14,64 egunekoa da; hau da, ezarrita dagoen 30 eguneko mugatik beherakoa. Ministeriora datuak bidaltzen dituzten entitateak Nafarroako toki entitate guztien ehuneko bederatzi baino ez dira.

VI. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, toki entitateek eta beren menpeko erakundeek 2019. urtean adjudikatutako kontratuak aztertzen dira, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako kontratuen erregistroko informazioaren arabera.

Hona toki entitateek adjudikatutako kontratuen datuak:

Kontratu mota	Udalak		Kontzejuak		Batasunak		Mankomunitateak		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak	214	41.027.894	17	1.951.592	6	1.134.554	14	6.005.225	251	50.119.266
Zerbitzuak	114	17.517.058			1	56.600	11	311.633	126	17.885.291
Hornidurak	45	4.947.145			2	90.805	4	545.890	51	5.585.840
Zerbitzuen emakida	11	207.528	1	33.333			1	0(*)	13	240.862
Guztizko orokorra	384	63.699.626	18	1.984.925	9	1.283.959	30	6.862.748	441	73.831.258

(*) Adjudikazioko zenbatekoa zero da, adjudikaziodunak erabiltzailearengandik zuzenean jasotzen duelako zerbitzuaren prezioa.

2019an, toki entitateek 441 kontratu adjudikatu zituzten, guztira 73,83 milioitan. Zenbateko hori 2018an adjudikatutakoa baino ehuneko bederatzita txikiagoa da. Kontratuen ehuneko 57 obrei dagozkie, eta adjudikatutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 68 egiten dute. Zerbitzu kontratuak kontratu guztien artean ehuneko 29 dira, nahiz eta haien zenbatekoak zenbateko osoaren aldean ehuneko 24 egiten duen.

Kontratu guztietatik ehuneko 87 udalek adjudikatu zituzten eta ehuneko zazpi mankomunitateek, baina zenbatekoari dagokionez ehuneko 86 eta ehuneko bederatzita egiten dute, hurrenez hurren.

2019an, toki entitateen menpekoak diren enteek honako kontratu hauek adjudikatu zituzten:

Kontratu mota	Erakunde autonomoak		Sozietate publikoak		Partzuergoak		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak	1	234.837	14	17.537.133				17.771.970
Zerbitzuak	1	163.950	18	1.498.205	5	158.418	24	1.820.573
Hornidurak	2	297.465	20	8.554.251	2	63.202	24	8.914.918
Guztizko orokorra	4	696.252	52	27.589.588	7	221.620	63	28.507.460

Erakunde autonomoek eta sozietate publikoek guztira 63 kontratu adjudikatu dituzte 28,51 milioitan. Zenbateko hori 2018. urtekoa baino ehuneko 31 handiagoa da.

2019an adjudikatutako kontratu guztietatik ehuneko 83 sozietate publikoei dagozkie, eta 27,59 milioi egiten dute orotara, hau da, guztizko zenbatekoaren ehuneko 97. Gainerako kontratuak erakunde autonomoek eta partzuergoek adjudikatu zituzten, eta guztizko zenbatekoaren ehuneko hiru egiten dute.

Laburbilduz, 2019an toki entitateek eta haien menpeko entitateek 504 kontratu adjudikatu zituzten, 102,34 milioitan, guztira. Zenbaki horiek aurreko urtekoen parekoak dira.

Hona hemen kontratuen kopurua eta zenbatekoa kontratazio-prozeduraren arabera:

Kontratu mota	Irekia		Erraztua		Lizitazio deialdirik gabe negoziatua		Negoziatua		Guztizko orokorra	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak	179	60.850.906	79	6.008.396	8	1.031.934			266	67.891.235
Zerbitzuak	119	18.568.470	13	264.367	12	721.218	6	151.809	150	19.705.864
Hornidurak	62	14.053.107	12	404.045	1	43.605			75	14.500.757
Zerbitzu emakidak	13	240.862							13	240.862
Guztizko orokorra	373	93.713.345	104	6.676.808	21	1.796.757	6	151.809	504	102.338.718

Nabarmentzen da prozedura irekia erabili izana kontratu guztien ehuneko 74tarako. Atzetik daude prozedura erraztua eta lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatua, hurrenez hurren ehuneko 21 eta ehuneko lau. Zenbatekoari dagokionez, prozedura irekia erabili da zenbatekoaren ehuneko 92 adjudikatzeko, eta gainerako ehuneko zazpia prozedura erraztuaren bidez adjudikatu da.

Urteko adjudikazio zenbatekoak aztertuta, laburpen honetan bildu ditugu 150.000 eurotik gorako zenbatekoarekin adjudikatutako kontratuak:

Tartea	Kontratuen kopurua				Urteko adj. zenb.
	Obrak	Hornidurak	Zerbitzuak	Zerbitzu emakidak	
>600.000 €	19	5	2	1	81.921.873
>400.000 eta <= 600.000 €	15	3	2		9.728.611
>150.000 eta <= 400.000 €	59	11	10	1	19.330.608

Urteko adjudikazio zenbatekoa kontratu horietarako (hots, beren zenbatekoengatik nabarmena-goak diren horietarako) honako hau izan zen:

Kontratu mota	Kopurua	Adjudikazio zenbatekoa
Obrak	93	55.110.108
Zerbitzuak	14	13.464.688
Hornidurak	17	11.609.374
Guztizko orokorra	124	80.184.170

Aurreko analisi bera egin dugu, baina adjudikazioaren gutizko zenbatekoak harturik, kontratuak irauten duen urteetarako, eta datu hauek lortu ditugu:

Tartea	Kontratuen kopurua				Urteko adj. zenb.
	Obrak	Hornidurak	Zerbitzuak	Zerbitzu emakidak	
>600.000 €	19	5	2	1	81.921.873
>400.000 eta <= 600.000 €	15	3	2		9.728.611
>150.000 eta <= 400.000 €	59	11	10	1	19.330.608

Hona zenbatekoari erreparatuz gero garrantzitsuenak diren kontratu horien adjudikazio zenbatekoa, guztira:

Kontratu mota	Kopurua	Adjudikazio zenbatekoa
Obrak	93	55.110.108
Zerbitzuak	14	41.196.944
Hornidurak	19	12.859.233
Zerbitzu emakida	2	1.814.808
Guztizko orokorra	128	110.981.092

VII. NAFARROAKO UDALEN, EAEKOEN ETA ESTATUKOEN ARTEKO KONPARAZIOA ZENBAIT ADIERAZLERI ERREPARATUTA

Atal honetan Nafarroako udalen, Euskal Autonomia Erkidegokoaren eta Estatuko gainerakoaren arteko konparazioa egiten da, zenbait adierazle erabiliz. Erabilitako informazioa Lurralde Kohesiorako Departamentuaren azterlan honetatik hartu da: Toki Sektoreari buruzko Txostena 2019.

Konparazioa homogeenagoa izan dadin, 40.000 biztanle baino gutxiago izan eta probintziako hiriburuak ez diren udalak hartu dira, Nafarroako udalen tamaina txikia dela-eta.

Konparatutako datuak honako udalari eta biztanle kopuru hauei dagozkie:

Adierazlea	Nafarroa	EAE(*)	Estatua	Guztira
40.000 biztanletik beherako udalerrien kopurua	264	188	6.517	6.969
Erreferentziako udalerrietako biztanleak, guztira	447.513	957.350	18.238.324	19.643.187
Batez besteko biztanle kopurua	1.695	5.092	2.799	9.586

(*) Ez dira jaso Arabako udalen datuak (50), bakar batek ere ez diolako Ministerioari kontu orokorrik aurkeztu.

Nafarroako batez besteko biztanle kopuru txikia nabarmentzen da Estatuko gainerako udalen eta batez ere EAEkoen aldean. Nafarroan udal bakar batek gaintzen du 40.000 biztanleen atala-sea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan badira bederatzi tamaina horretako udalak.

Beheko tauletan diru-sarrerak eta gastuak azaltzen dira kapitulu ekonomikoaren arabera eta biztanle bakoitzeko:

Diru-sarrerak	Nafarroa		EAE		Estatuko gainerakoak	
	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean	Per capita	Ehunekoak, guztizkoaren gainean
Zuzeneko zergak	316	26,7	306	20,8	429	36,9
Zeharkako zergak	55	4,6	33	2,2	28	2,4
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	181	15,3	236	16,0	193	16,6
Transferentzia arruntak	416	35,2	807	54,8	360	30,9
Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	64	5,4	16	1,1	22	1,9
Diru-sarrera arruntak	1.032	87,1	1.398	94,9	1.032	88,7
Inbertsio errealak besterentzea	20	1,7	12	0,8	4	0,3
Kapital-transferentziak eta bestelako kapital diru-sarrerak	125	10,6	36	2,5	81	7,0
Kapitaleko diru-sarrerak	145	12,2	48	3,3	85	7,3
Aktibo finantzarioak	2	0,1	2	0,1	1	0,1
Pasibo finantzarioak	6	0,5	24	1,6	46	4,0
Diru-sarrera finantzarioak	7	0,6	26	1,8	47	4,0
Guztira	1.184	100	1.472	100	1.163	100

Gastuak	Nafarroa		EAE		Estatuko gainerakoak	
	Per capita	Ehunekoa, guztizkoaren gainean	Per capita	Ehunekoa, guztizkoaren gainean	Per capita	Ehunekoa, guztizkoaren gainean
Langile-gastuak	386	32,7	448	32,0	406	36,6
Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	358	30,2	531	37,9	382	34,4
Finantza-gastuak	2	0,2	1	0,1	6	0,5
Transferentzia arruntak	94	7,9	152	10,8	60	5,4
Eragiketa arruntak	840	71,0	1.132	80,8	854	76,9
Inbertsio errealak	293	24,8	235	16,8	176	15,8
Kapital-transferentziak	10	0,9	7	0,5	5	0,5
Kapital-eragiketak	303	25,6	242	17,3	181	16,3
Aktibo finantzarioak	1	0,1	1	0,1	2	0,1
Pasibo finantzarioak	39	3,3	26	1,9	75	6,7
Finantza-eragiketak	40	3,4	27	1,9	76	6,9
Guztira	1.182	100	1.401	100	1.110	100

Diru-sarreraren likidazioan ikus dezakegu bai Nafarroan zein Estatuan diru-sarrera arruntek guztizko diru-sarreraren ehuneko 88 inguru egiten dutela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan, berriz, ehuneko 95 inguru. EAEko udalekiko alde handiena transferentzia arruntetan dago, eta, gehienbat, autonomia-erkidegoko tributuetan parte hartzeko funtsak eragiten du. Estatuko gainerako udalei dagokienez, alde handiena zuzeneko zergetan dago, Nafarroak arlo horretan 114 euro gutxiago jasotzen baititu biztanleko.

Kapital-transferentzien kapituluan, aldiz, Nafarroak 89 euro eta 44 euro gehiago jasotzen ditu biztanleko, hurrenez hurren, EAEko udalek eta Estatuko gainerakoek baino. Hona EAEko udalekiko aldearen arrazoiak: Nafarroako Komunitatearen tributuetako partaidetza neurri batean baldintzatua da inbertsioen finantzaketarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, baldintzatu gabeko funtsa da ia osorik, alegia, transferentzia arrunta da.

Biztanleko gastu arruntei dagokienez, Nafarroak biztanleko 292 euro gutxiago eta 14 euro gutxiago xedatzen ditu EAEko udalek eta Estatuko gainerakoek baino, hurrenez hurren. Kapital-eragiketetan, ordea (ia eragiketa guztiak inbertsioak dira), Nafarroako udalek 61 eta 122 euro gehiago gastatzen dituzte EAEkoek eta Estatuko gainerakoek baino, hurrenez hurren.

Hona hemen zenbait adierazle, hiru eremuetarako:

Adierazlea	Nafarroa	EAE	Estatuko gainerak.	Aldea Nafarroa-EAE	Aldea Nafarroa-Estatua
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.032	1.398	1.032	-366	1
Funtzionamendu gastuak (biztanleko)	838	1.131	848	-293	-10
Finantza-zama (biztanleko)	41	27	81	14	-40
Aurrezki gordina (biztanleko)	195	267	184	-73	11
Aurrezki garbia (biztanleko)	154	240	103	-87	50
Zor bizia (biztanleko)	191	127	256	64	-65
Zorpetze-maila (% zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 18	% 9	% 25	% 9	-% 7
Finantza-zamaren indizea (3. eta 9. kap./diru-sar. arruntak)	% 4	% 2	% 8	% 2	-% 4
Aurrezki gordina diru-sarrera arruntaren gainean (d.s. arr. - funtz. gast. / d.s. arr.)	% 19	% 19	% 18	% 0	% 1
Jasotako transferentziak (biztanleko)	541	843	441	-302	100
Transf. arruntez finantzaturako gastu arruntak (%)	50	71	42	-22	7
Kapital-transf. bidez finantzatu ez diren inbertsioak (%)	57	84	54	-27	3

Konparazio taula horretatik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Nafarroan bai funtzionamendu gastuak bai diru-sarrera arruntak, biztanle bakoitzeko, EAEn baino askoz txikiagoak eta Estatuko gainerakoen parekoak dira.
- Biztanleko aurrezki gordina eta garbia handiagoak dira Nafarroan Estatuko gainerako udaletan baino, eta txikiagoak EAEn baino. Era berean, Nafarroan biztanleko zor bizia EAEn baino handiagoa eta Estatukoa baino txikiagoa da.
- Azkenik, biztanleko jasotako transferentzien adierazlea nabarmentzen da, Nafarroan EAEn udaletan baino askoz txikiagoa eta Estatuko gainerakoetan baino handiagoa baita.

VIII. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Honako hauek dira 2019an toki sektore publikoak izan duen antolamenduari, fiskalizazioari eta egoera finantzarioari buruzko konklusio nagusiak:

- Toki sektore publikoak 702 toki entitate biltzen ditu: 272 udal, 346 kontzeju, 62 mankomunitate eta udalen 22 batasun. Toki entitate horiek 122 menpeko entitate sortu dituzte zerbitzuak emateko, eta 17 partzuergotan parte hartzen dute.

Bere horretan dirau Nafarroako udalen egungo plantaren arrazionalizazio faltaren arazoak, Ganbera honek behin eta berriz nabarmenduak. Nafarroako udalek biztanle gutxi dituzte, eta falta zaizkie beren eskumenak kudeatzeko baliabideak eta administrazio-egitura egoki eta nahikoa. Horrek zaildu egiten die zerbitzu publiko efizienteak eta kalitatezkoak ematea.

Horri dagokionez, gaur egun, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legea onetsita dago, baina eskatzen du arau-aldaketak egin eta onestea, planteatutako erreforma behin betiko zehazten joateko. Aurreikusita dago II.2 atalean aipatutako finantzaketa-proposamena jasozten duen espedientea Nafarroako Parlamentura bidaltzea 2022aren hasieran, onets dadin eta urtarilaren batetik aurrera izan ditzan ondorioak.

Jarraian xehetasunez azaltzen ditugu 2019ko ekitaldiko kontuak onesteko eta kontuak emateko epeak:

Entitate mota	Epean onetsia (1.9.x+1)		Epean igorria (16.09.x+1)	
	2018	2019 (*)	2018	2019 (*)
Udalak	% 82	% 85	% 66	% 71
Kontzejuak	% 73	% 74	% 60	% 55
Mankomunitateak	% 74	% 66	% 63	% 53
Udal batasunak	% 73	% 59	% 55	% 41

(*) 2019rako, kontuak emateko eta igortzeko epeak beste 99 egunez luzatu dira. 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 48. artikulua.

Nabarmentzekoa da kontu gehienak, ehuneko 50etik gora, araudian ezarritako epearen barruan onesten direla, baina kontuak ematea atzeratu egiten dela eta kontuak epe barruan ematen dituztenen ehunekoak txikiagoak direla. Egiaztatu dugunez, udalen kontu-ematearen eta igorpenaren ehunekoak aurreko ekitaldikoak baino handiagoak dira, eta gainerako entitateen ehunekoek lehen-goan dira edo behera egin dute.

Kontu orokorrik aurkeztu ez duten toki entitateetatik, likidazio espedientea aurkeztu dute udalen ehuneko bostek, kontzejuen ehuneko batek, mankomunitateen ehuneko 11k eta batasunen ehuneko 18k. Hala ere, udal batek baino ez du hura onetsi ezarritako epean.

Era berean, hona hemen xehetasunez azalduta 2019ko ekitaldiko aurrekontuen espedientea onesteko eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusira bidaltzeko epeak:

Entitate mota	Epean onetsia (2018-12-31)	Epean igorria (2019-01-16)	2019-04-01erako igorria
Udalak	% 43	% 4	% 42
Kontzejuak	% 17	% 1	% 18
Mankomunitateak	% 37	% 2	% 23
Udalen batasunak	% 23	% 0	% 9

Nabarmentzekoa da ezarritako epean onetsitako aurrekontuen indizeak baxuak direla. Gainera, kasu honetan, espedientearen onespeneraren eta hura epe barruan bidaltzearen artean dagoen aldea handiagoa da kontu orokorrean ageri dena baino. Udal eta kontzejuetan indizeek hobera egin dute eta mankomunitate eta batasunetan okerrera egin dute aurreko ekitaldiko aldean.

- 2019an Iruñeko eta Eguesibarko udalak fiskalizatu ziren. Gainera, langileen kontratazioari buruzko fiskalizazio horizontala egin zen Jurramendiko Mankomunitatean eta Lekunberri, Lodosa, Ribaforada eta Zangozako udaletan.

Fiskalizazioetan atzemandako akats nagusiak honako hauek dira: gastuak ordaintzea kontratazio espedienterik izapidetu gabe, edo kontratuaren indarraldia amaiturik dagoela; langileen kontratazioetan ez betetzea berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak; eta egiturazko lanpostu iraunkor batzuk plantillan ez sartu, aldi baterako kontratuen bidez bete, eta araudiak onartzen dituen gehieneko epeak gainditzea kontratu horietan.

- Finantzen egoera bateratuari dagokionez (sozietate publikorik gabe), 2019an diru-sarrerak 891,40 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko sei egin zuten gora 2018koekiko; gastuak, berriz, 885,37 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko 12 egin zuten gora. 2015. urtearekiko bilakaerak zeinu bera du, baina diru-sarrerak ehuneko 19 igo ziren eta gastuak ehuneko 21.

Aurrekontuko gastu eta diru-sarrera garrantzitsuenen osaerari dagokionez, funtzionamendu-gastuak 653,91 milioi eurora iritsi ziren; hau da, 2015ean baino ehuneko 11 eta 2018an baino ehuneko lau handiagoak dira. Bestalde, tributu bidezko diru-sarrerak 402,08 milioikoak izan ziren, eta 2019an ehuneko lau hazi ziren aurreko urteko aldean eta ehuneko 12 igo ziren 2015eko aldean. Aurrekontuko emaitza ez-finantzarioak behera egin du bai aurreko urtearekiko bai 2015arekiko. Hurrenez hurren, jaitsiera ehuneko 62koa eta 48koa izan da.

Toki sektore publikoak 31,16 milioiko emaitza ez-finantzarioa lortu zuen, 107,14 milioiko aurrezki garbia izan zuen, eta gastu orokorretarako diruzaintza soberakina 275,17 milioikoa izan zuen. Azken adierazle horrek azken urteetako goranzko bideari eusten dio, eta ehuneko 43 hazi da 2015eko aldean.

2019an, zor bizia 179,61 milioikoa zen, hau da, ehuneko 40 murriztu zen 2015eko datuekiko eta ehuneko 13 murriztu zen 2018ko datuekiko; toki entitateek ehuneko 13,5eko zorpetze ahalmena zuten.

Gainera, 37,78 milioi euroko finantza-ahalmena lortu zuen eta zor bizia diru-sarrera arrunten ehuneko 23 egiten zuen, legez ezarritako ehuneko 110eko mugaren oso behera.

Azken batean, toki sektore publikoaren egoera ekonomikoa saneatua da, eta adierazle ekonomiko-finantzarioek aldeko bilakaera erakusten dute; halere, gastu ez-finantzarioak egiteko eta zorpetzeko muga batzuk badaude, finantza-egonkortasuneko eta -iraunkortasuneko helburuek ezarritakoak. Toki sektore publikoa, bere osotasunean, helburu horiek bete egin zituen 2019ko ekitaldian.

- Toki entitateek eta haien menpeko entitateek 2019an, guztira, 102,34 milioi euro egiten duten 504 kontratu adjudikatu zituzten; horietatik, ehuneko 53 obra-kontratuei dagozkie (aipatutako zenbateko osorearen ehuneko 66), ehuneko 30 zerbitzu-kontratuak dira (guztizko zenbatekoaren ehuneko 19), ehuneko 15 horniduretara bideratu ziren (guztizko zenbatekoaren ehuneko 14) eta gainerakoak, ehuneko hiru, zerbitzu-emakidak dira.

- Nafarroako udalen, EAEkoen eta Estatuko gainerako udalen adierazleak alderatu eta aztertuz gero, alde nabarmenak antzeman daitezke haietako batzuetan; biztanleko gastuak eta diru-sarrerak handiagoak dira Nafarroako udaletan Estatuko gainerako udaletan baino, eta txikiagoak EAEko udaletan baino. Jasotako transferentziak EAEko udalenak baino askoz apalagoak dira, baina Estatuko gainerakoak baino handiagoak. Biztanleko aurrezki gordina eta garbia Estatuko gaineratik daude eta EAEko udaletakoen azpitik. Azkenik, biztanleko zor bizia txikiagoa da Nafarroan Estatuko gainerako udaletan baino, baina handiagoa EAEn baino.

- 2020an onetsi da abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Zenbait berrikuntza ekarri ditu toki tributuen arloan eta toki entitateen kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoaren arloan. Gainera, legea egokitu egin da, toki entitateek beharrezkoak diren arauzko tresnak eduki ditzaten aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak bete ahal izateko. Horrela, Gobernuak bete egin ditu Ganbera honek behin eta berriz errepikatutako bi gomendio.

- Halaber, egiaztatu dugu bete egin dela toki entitateek kontuak emateari buruzko informazioa NFKAren webgunean argitaratzeari buruzko gomendioa. [Toki entitateak. Aurrekontua eta kontuak. | Nafarroako Gobernu Irekia.](#)

- Bestalde, Nafarroako toki kontabilitatea Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra oinarri hartuz araututa dago, 1990eko uztailaren 17ko Ministerio Aginduaren bidez Toki Administrazioarentzat egindako egokitzapenaren arabera.

Arlo hau dela-eta egin den azken eguneratzea 2015ekoa da, toki entitateen aurrekontu-egitura berria onetsi zenekoa. Egitura berri hori araubide erkideko toki entitateek aplikatzen dutenari egokituta dago.

Ez da araurik eman toki entitatearen eta haren menpeko erakundearen kontabilitatearen egoera-orriak bateratzeari buruz.

Kontuan hartuta konklusio horiek guztiak, Ganberak honako gomendio hauek egiten ditu:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari

- *Behar diren lege eta administrazio neurriak ezartzea erabat burutu dadin Nafarroako Toki Administrazioaren berregituraketa, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean ezarritakoa, kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorra lortzeko.*

- *Toki kontabilitatearen erreformari ekitea ahalik eta azkarren, eta 2010eko Kontabilitate Publikoko Plan Orokor indardunera egokitzea.*

- *Toki entitateen eta horien menpeko entitateen kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko metodologiari buruzko arauak taxutzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegia emateko helburuarekin.*

- *Toki zerbitzuen kostuak kalkulatzeko sistema bat taxutzea eta hura ezar dadin sustatzea, bai eta kudeaketaren adierazleak ere, horrela beteko baita Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko Legean eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean xedatutakoa.*

- *Toki entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoari buruzko araudia prestatzea, beste helburu batzuen artean, ekonomia- eta aurrekontu-kontrol zorrotzagoa lortzeko eta kontu-hartzaileak toki erakundeetan duen eginkizuna indartzeko.*

- *Prozesuak informatizatzen jarraitzea, lan hori beharrezkoa baita toki entitateetako organo kontu-hartzaileek errazago bidali ahal izateko txostenak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa betez.*

- *Toki entitateen erregistroaren eguneratzea amaitzea toki fundazioei eta sozietate publikoei buruzko informazioarekin, eta lehendik dagoen informazioa berrikustea, zuzentze aldera.*

- *Toki sektore publikoaren finantza egoerari buruz Nafarroako Gobernuak egindako txostena osatzea, sozietate publikoei, fundazioei eta partzuergo publikoei buruzko informazio osoa gehituz.*

- *Langileen plantilla organikoaren eredu bat egitea, zeinak argitasunez eta zehaztasunez jasoko baititu dokumentu horrek bete behar dituen baldintzak eta eduki behar duen informazioa; eredu horrek, halaber, aukera emanen du toki entitateek informazio-betekizunak bete ditzaten.*

Toki entitateei

- *Egiturazko lanpostu guztiak plantilla organikoan sartzea, eta gutxitzea, deialdi egokien bitartez, toki entitateetako langileen behin-behinekotasun maila handia.*

- *Udal ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.*

- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, bai eta hirigintza hitzarmenen gaineko erregistroa ere.*

- *Udalaren barne kontrola egitea, aplikatzekoa den legerian ezarritako hedapenarekin, menpeko erakundeen kudeaketa ekonomikoaren gaineko kontrolari dagokionez, bere eginkizun hirukoitzaren arabera: kontu-hartzailera, finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.*
- *Toki entitateek beren burua antolatzeko duten ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolaketa-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*
- *Zerbitzu publikoen kostuen metodologia ezartzen jarraitzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*
- *Aurrekontua, aurrekontu-likidazioa eta kontu orokorra onestea ezarritako epeetan eta horien kontuak ematea 15 eguneko epean, onesten direnetik hasita.*
- *Balorazio-ponentziak epean gaurkotzea.*

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikorena Matxain auditoreak proposatuta jaulkitzen da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2021eko abenduaren 22an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA TOKI ENTITATEEI 2019KO EKITALDIAN APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA

a) Toki-administrazioa eta -araubidea

- 7/1985 Foru Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 19/2013 Foru Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.
- 27/2018 Foru Legea, abenduaren 24koa, 2019ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (aurrekontu horiek 2019rako luzatu ziren).
- 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
- 18/2017 Foru Legea, abenduaren 27koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituena 2018. eta 2019. urteetarako.
- 18/2018 Foru Legea, urriaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea.
- 84/2017 Foru Agindua, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria-rena, Tokiko Inbertsioen 2017-2019 Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen 20. artikuluan aurreikusitako gizarte klausula aplikatzeko modua arautzen duena.
- 13/2017 Foru Legea, azaroaren 16koa, osasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetako itun sozialak arautzen dituena.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.
- 12/2018 Foru Legea, ekainaren 14koa, irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.
- 14/2018 Foru Legea, ekainaren 18koa, hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoa.
- 4/2019 Foru Legea, otsailaren 4koa, Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako.
- 8/2019 Foru Legea, otsailaren 28koa, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena.
- 12/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa, Nafarroako parte-hartze demokratikoari buruzkoa.
- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.
- 20/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea.
- 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, premiazko neurriak ezartzen dituena emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko enplegu eta lanaren arloan.

- 14/2019 Errege Lege Dekretua, urriaren 31koa, zeinaz presako neurriak hartzen baitira segurtasun publikoko arrazoiengatik administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan.

b) Araubide ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.
- 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifei eta Jarraibideei buruzkoa.
- Irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretua, eta irailaren 21eko 272/1998 eta 273/1998 foru dekretuak, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa, aurrekontu egiturari buruzkoa, eta Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzio Orokorra eta Kontabilitate Erraztua onestekoak, hurrenez hurren.
- Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1990eko uztailaren 17ko Aginduaren bidez onetsia. (Kontabilitateko Instrukzio Orokorri buruzko 272/1998 Foru Dekretuko 425. araua).
- 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta kastroei buruzkoa.
- 22/2018 Foru Legea, azaroaren 13koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.
- 3/2019 Foru Legea, urtarrilaren 24koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.
- 18/2019 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez zergen, katastroaren eta gizarte-segurantzaren alorretan zenbait neurri hartzen baitira.

c) Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaz aldatu zen).
- 6/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, honako hauek aldatzekoa: Autonomia-erkidegoak Finantzeari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.
- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.
- 10/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaren bidez, batetik, 2019rako luzatzen baita finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetarako autonomia-erkidegoen eta toki entitateen superabitaren xedea eta, bestetik, beste neurri batzuk hartzen baitira toki entitateetan gaikuntza nazionala duten langileen eginkizunari dagokionez.
- 1/2018 Errege Lege Dekretua, martxoaren 23koa, toki korporazioen superabita finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetara bideratzeko aukera luzatzen duena eta inbertsio horien eremu objektiboa aldatzen duena.
- 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa.

- 8/2013 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, administrazio publikoen berankortasunaren aurkako presako neurriei eta finantza-arazoak dituzten toki entitateei laguntzeari buruzkoa.
- 17/2014 Errege Lege Dekretua, abenduaren 26koa, autonomia-erkidegoen eta toki entitateen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzkoa.
- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzekoa.
- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketeei eta autonomia-erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioa.

d) Kontratazio administratiboa

- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 15/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 3ko 2/2018 Foru Legea aldatzen duena.
- 74/2019 Foru Dekretua, ekainaren 26koa, Kontratazio Publikorako Batzordea arautzen duena.
- 317/2019 Foru Dekretua, azaroaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen Europako atalaseak eguneratzen dituena.

e) Langileak

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.
- 158/1984 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzurako langileen ordainsarien behin-behineko araudia onartzen duena (martxoaren 29ko 21/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatua).
- 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duena (maiatzaren 17ko 29/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatua).
- 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.
- 12/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia luzatzen baita eta langile horien montepi-otako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira (2019. urterako luzatu zuen abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legeak, Nafarroako 2019rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak).
- 13/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dago-kionez.
- 4/2015 Errege Lege Dekretua, martxoaren 22koa, enplegurako lanbide heziketaren sistema presaz erreformatzekoa lan-arloan.
- 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako polizia buruzkoa.
- 1/2018 Foru Lege Dekretua, urriaren 24koa, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurri batzuk.
- 6/2019 Foru Legea, otsailaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

- 7/2019 Foru Legea, otsailaren 18koa, aldatzen duena martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa.

- 4/2019 Foru Lege Dekretua, urriaren 23koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onesten dituena.

f) Hirigintza

- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.

- 253/2019 Foru Dekretua, urriaren 16koa, Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituena.

g) Dirulaguntzak

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

h) Toki entitateen barne araubidea

- Toki entitateen aurrekontuen exekuzio oinarriak, 2019rako.
- Tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta erabakiak.
- Berariazko hitzarmen kolektiboak.

